*Ayudas de pago único para mujeres víctimas de violencia de género. En atención a una reciente Proposición no de Ley, estamos estudiando los criterios de acceso a esas ayudas con vistas a una posible modificación.*

*Gestión integrada en materia de violencia de género: Se continúa con la elaboración de un estudio para desarrollar la coordinación de la actuación entre departamentos del Gobierno de manera que desde el Departamento de Empleo y Políticas Sociales se lidere el proceso y se actúe con el significado de ventanilla única, facilitando las gestiones a las mujeres víctimas.*

**21. BESTE SISTEMA BATZUEKIKO (JUSTIZIA, ETXEBIZITZA, GARRAIOA, ETA ABAR)**

***21. MEJORAR LA COORDINACIÓN CON OTROS SISTEMAS (JUSTICIA, VIVIENDA, TRANSPORTE…)***

**KOORDINAZIOA HOBETZEA, GIZARTE ZERBITZUEK ARTATZEN DITUZTEN KOLEKTIBOEN PREMIEN ZEHARKAKOTASUNA HANDIA DELAKO**

Eusko Jaurlaritzako hainbat sailekin lanean jarraitu dugu "Euskadi Lagunkoia" edo "Euskadi Amigable" ekimenaren baitan; besteak beste, sail hauekin: Hezkuntza, Kultura; Osasuna; Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuna; eta Ingurumen eta Lurralde Politika.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Arloarekin batera, adinekoentzako etxebizitzen gida bat egiten hasi gara. Horretarako, kontuan hartu dira irisgarritasuna eta bizitoki-eredu berriak.

Azaroan, Nagusi 2018 erakusketan izan ginen, eta beste sail batzuetako gaiak ere aurkeztu genituen Enplegu eta Gizarte Politiketako standean, besteak beste, Hezkuntza, eta Osasunekoak.

***DADA LA TRANSVERSALIDAD DE LAS NECESIDADES DE LOS COLECTIVOS ATENDIDOS POR LOS SERVICIOS SOCIALES***

*Ha continuado la coordinación con diversos departamentos del Gobierno Vasco en el marco de la iniciativa "Euskadi Lagunkoia" o "Euskadi Amigable", tales como Educación, Cultura; Salud; Desarrollo Económico y Competitividad; Medio Ambiente y Política Territorial.*

*Conjuntamente con el área de Vivienda del Gobierno Vasco se ha iniciado la elaboración de una guía de viviendas para personas mayores, tanto desde el punto de vista de la accesibilidad como del de los nuevos modelos residenciales.*

*En noviembre se participó en el Salón Nagusi 2018, dando cabida y contenido a temas de otros departamentos en el stand de Empleo y Políticas Sociales, tales como Educación y Salud.*

**22. AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEARI ETA MENDETASUN EGOERAN DAUDENEN ARRETARI BURUZKO LEGEAREN ESPARRUAN KOORDINAZIOA HOBETZEA**

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeko eta haien arretarako legeari dagokionez, parte-hartze aktiboa izan da Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak deitutako bileretan.

Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiarako eta Menpekotasunaren Arretarako Lurralde Kontseiluaren osoko bilkura martxoan elkartu zen.

Mendekotasunarekiko Arretarako eta Autonomiarako Sistemaren eta Zerbitzu Sozialen Lurralde Kontseiluaren Batzorde Delegatua, bestalde, hirutan bildu zen (otsailean apirilean eta azaroan).

Bilera horietan askotariko gaiak landu zituzten; besteak beste:

Alzheimerraren Plan Nazionalari buruzko informazioa. Adineko Pertsonen Estrategia Nazionala, Zahartze Aktiborako eta Tratu Onerako (2018-2021) proiektuari buruzko informazioa. Inoren kargura ez dauden adingabeen egoerari buruzko informazioa. Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legea betearazteko erregelamenduaren proiektuari buruzko txostena, Lurralde Kontseiluak onar dezan. Bakartasunaren aurka Borrokatzeko Estrategia Nazionalari buruzko informazioa.

***22. MEJORAR LA COORDINACIÓN EN EL ÁMBITO DE LA LEY DE PROMOCIÓN DE LA AUTONOMÍA PERSONAL Y ATENCIÓN A LAS PERSONAS EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA***

*En relación con la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia, se ha participado activamente en las reuniones convocadas por el Ministerio de Sanidad, Consumo y Bienestar Social.*

*El Pleno del Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia se reunió en 1 ocasión, en marzo.*

*Por su parte, la Comisión Delegada del Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia se reunió en 3 ocasiones (febrero, abril y noviembre).*

*En dichas reuniones se trataron numerosos temas, entre los que destaca:*

*Información sobre el Plan Nacional de Alzhéimer. Información sobre el Proyecto de Estrategia Nacional de Personas Mayores para un envejecimiento activo y para su buen trato (2018-2021). Información sobre la situación de los menores no acompañados. Informe para su aprobación por el Consejo Territorial relativo al proyecto de reglamento de ejecución de la Ley 45/2015, de 14 de octubre, de Voluntariado. Información sobre la Estrategia Estatal de Lucha contra la Soledad.*

**23. ARAU ESPARRUA ZEHAZTEA, IRABAZI ASMORIK EZ DUTEN EKIMEN SOZIALEKO ERAKUNDEEK ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZUAK EMATEKO**

Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legea onetsi ondoren, Kontzertazio Sozialaren Dekretua egiten ari gara, Sareen Sarearekin, foru-aldundiekin eta Eudelekin batera.

***23. DEFINIR EL MARCO REGULADOR PARA LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS DE RESPONSABILIDAD PÚBLICA POR PARTE DE LAS ENTIDADES DE INICIATIVA SOCIAL SIN ÁNIMO DE LUCRO***

*Tras la aprobación de la Ley del Tercer Sector Social, se está elaborando el Decreto de Concertación Social, en coordinación con Sareen Sarea, diputaciones forales y Eudel.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 3124 FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKA | *3124 POLÍTICA FAMILIAR Y COMUNITARIA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 04 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK | *04 EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES* |
| FAMILIA POLITIKAKO ETA ANIZTASUNEKO ZUZENDARIA | *DIRECTOR DE POLÍTICA FAMILIAR Y DIVERSIDAD* |

**HELBURUA**

1. FAMILIA POLITIKA

Familiak babesteko, artatzeko eta laguntzeko zuzeneko ekintzen neurriak.

Sentsibilizazio, sustapen eta prebentzio-neurriak.

Euskal Autonomia Erkidegoko familia-politikaren planifikazioa, koordinazioa eta ebaluazio orokorra.

2. HAURTZAROARI ETA NERABEZAROARI BURUZKO POLITIKA

Zuzeneko ekintza.

Araudiaren garapena:

Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Batzorde Iraunkor Sektoriala.

Nazioarteko adopzioa:

Arreta goiztiarra

Eusko Jaurlaritzaren haurtzaroaren eta nerabezaroaren esparruko zeharkako politika integrala planifikatzea, koordinatzea, ezartzea eta ebaluatzea.

***OBJETIVO***

*1. POLÍTICA FAMILIAR*

*Medidas de acción directa para la protección, atención y apoyo a las familias.*

*Medidas de sensibilización, promoción y prevención.*

*Planificación, coordinación y evaluación general de la política de familia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

*2. POLÍTICA SOBRE INFANCIA Y ADOLESCENCIA*

*Acción directa.*

*Desarrollo normativo:*

*Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia.*

*Adopción Internacional:*

*Atención temprana.*

*Planificación, coordinación, implementación y evaluación de la política transversal e integral de infancia y adolescencia del Gobierno Vasco.*

**BETETZE MAILA**

**1. FAMILIA POLITIKA**

**Familiak babesteko, artatzeko eta laguntzeko zuzeneko ekintzen neurriak.**

1. Seme-alabak dituzten familiak laguntzeko laguntza ekonomikoak.

1.1. Programaren egikaritzapena.

Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituzten uztailaren 16ko 176/2002 Dekretua, abenduaren 19ko 255/2006 Dekretua eta martxoaren 17ko 30/2015 Dekretua (uztailaren 30eko 121/2018 Dekretuak aldatua) betez, 30.825 diru-laguntza eman ziren seme-alabak ardurapean izateagatik; horietatik

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

***1. POLÍTICA FAMILIAR***

***Medidas de acción directa para la protección, atención y apoyo a las familias.***

*1. Ayudas económicas de apoyo a las familias con hijos e hijas.*

*1.1. Ejecución del programa.*

*En ejecución de los Decretos 176/2002, de 16 de julio, 255/2006, de 19 de diciembre, y 30/2015, de 17 de marzo, modificado por el Decreto 121/2018, de 30 de julio, reguladores de las ayudas a las familias con hijos e hijas, se concedieron un total de 30.825 ayudas por hijo o hija a cargo, de las que 6.822 fueron por primer*

6.822, lehenengo seme edo alabarengatik; 14.643, bigarren seme edo alabarengatik; eta 9.360, hirugarren seme edo alabarengatik edo hurrengoengatik. Bestalde, berariazko 285 diru-laguntza eman ziren: 285 erditzeagatik edo adopzio nazional anizkoitzagatik eta 10 nazioarteko adopzio soilagatik. Horrez gain, 396 kasutan onartu zen %33ko edo goragoko desgaitasuna edo mendakotasun-egoera aitortzearen ondoriozko diru-laguntzak bikoiztea. Azkenik, 413 gorako errekurtso ebatzi ziren eta 24 ebazpen aldaketa egin ziren.

1.2. Arau garapena.

Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzeko, 2018an jarraitu zen dekretu proiektuaren prozedura izapidetzen. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordearen nahitaezko txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena eta, azkenik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso ziren, eta behin txostenak eta irizpena aztertu eta ebaluatu ondoren, beharrezkoa izan zenean, egoki irizten ziren zuzenketak arau-proposamenaren testuan txertatu ziren. Azkenik, uztailaren 30eko 121/2018 Dekretua, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzeko dena, 2018ko abuztuaren 6ko EHAAn argitaratu zen. Dekretu berriak dakartzan eskubide hobekuntzen ezagupenerako ahalegin handia egin zen, eta, horretarako, EAEko udal guztietako gizarte zerbitzuetara, Haurreskoletara, ikastetxeetara eta familia eremuko elkarteetara informazioa bidali zen. Dekretua indarrean sartzearen ondorioz, lurralde unitatateko eta Zuzenean zerbitzuko langileek prestakuntza eta informazioa jaso zuten. Era berean, diru-laguntzen kudeaketarako aplikazio informatikoan aldaketak egin behar izan ziren.

1.3. Seme-alabak dituzten familiak laguntzeko diru-laguntzei buruzko informazioa eguneratzea eta hedatzea.

Euskadi.eus web atarian seme-alabak dituzten familiak laguntzeko diru-laguntzei buruzko informazioa eguneratu zen, uztailaren 30eko 121/2018 Dekretuaren edukira egokitzeko.

Horrez gain, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzei buruzko esku-liburua prestatu zen.

1.4. Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak kudeatzen dituen aplikazio informatikoa.

Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak kudeatuko dituen aplikazio informatiko berria egiten ari den enpresarekin, EJIErekin eta Zerbitzu Zuzendaritzaren lankideekin bilerak egin ziren. Aplikazio informatikoa 2019ko apirilean martxan jarriko da.

2. Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko laguntzak.

2.1. Programaren egikaritzapena.

*hijo o primera hija, 14.643 por segundo hijo o segunda hija, y 9.360 por tercer hijo o tercera hija o siguientes. Igualmente, se concedieron 295 ayudas específicas, de las que 285 fueron por parto o adopción nacional múltiple y 10 por adopción internacional simple. Además, se reconoció la duplicación de ayudas por reconocimiento de discapacidad igual o superior al 33% o situación de dependencia en 396 casos. Finalmente, se resolvieron 413 recursos de alzada y se realizaron 24 modificaciones de resolución.*

*1.2. Desarrollo normativo.*

*En 2018 se continuó con la tramitación del procedimiento de elaboración del proyecto de Decreto de modificación del Decreto de las ayudas económicas de apoyo a las familias con hijos e hijas a cargo. Se recibieron el informe preceptivo del Consejo Económico y Social, el informe de la Oficina de Control Económico y, finalmente, el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora, informes y dictamen que fueron analizados y valorados, realizándose, en su caso, las modificaciones que se estimaron oportunas en el texto de la propuesta normativa. Finalmente, el Decreto 121/2018, de 30 de julio, de modificación del Decreto de las ayudas económicas de apoyo a las familias con hijos e hijas a cargo, fue publicado en el BOPV de 6 de agosto de 2018. Se realizó un esfuerzo muy importante de difusión de las mejoras de derechos que supuso el nuevo Decreto, remitiéndose la información a todos los servicios sociales municipales de la CAPV, Haurreskolak, centros educativos y asociaciones del ámbito de la familia. La entrada en vigor del Decreto supuso la formación e información al personal de las unidades territoriales y al personal de Zuzenean y modificaciones en la aplicación informática de gestión de las ayudas.*

*1.3. Actualización y difusión de la información referida a las ayudas por hijos e hijas a cargo.*

*Se actualizó la información referida a las ayudas por hijos e hijas a cargo que se contiene en el portal web euskadi.eus, a fin de adecuar la misma al contenido del Decreto 121/2018, de 30 de julio.*

*Además, se preparó un folleto informativo sobre las ayudas a las familias con hijos e hijas a cargo.*

*1.4. Aplicación informática que da soporte a la gestión administrativa de las ayudas a las familias con hijos e hijas a cargo.*

*Se mantuvieron reuniones preparatorias con la empresa adjudicataria para la elaboración de la nueva aplicación informática que dará soporte a la gestión administrativa de las ayudas a las familias con hijos e hijas a cargo, EJIE y personal de la Dirección de Servicios. La aplicación informática se implementará en abril de 2019.*

*2. Ayudas para la conciliación de la vida personal, familiar y laboral.*

*2.1. Ejecución del programa.*

Lana eta familia bateratzeko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren baitan (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak aldatu zuena) 15.061 pertsonak jaso zituzten laguntzak. Horietatik:

- 14.331 pertsonak jaso zituzten laguntzak seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzen arloan.

- 406 pertsonak jaso zituzten laguntzak mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszendentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzen arloan.

- 324 pertsonak jazo zituzten laguntzak, adingabeak zaintzeko langileak kontratatzen diren arloan.

Horrez gain, 185 gorako errekurtso ebatzi ziren, 139 ebazpen aldaketa egin ziren eta 75 itzultze espediente hasi ziren.

2.2. Arau garapena.

2018. urtean, lana eta familia bateratzeko laguntzei buruzko Dekretu-proiektuaren lehenengo proposamena eta Dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen dion Aginduaren zirriborroa prestatu ziren.

2.3. Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko laguntzak kudeatuko dituen aplikazio informatikoa.

Bizitza personala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko laguntzak kudeatuko dituen aplikazio informatiko berria egiten ari den enpresarekin, EJIErekin eta Zerbitzu Zuzendaritzaren lankideekin bilerak egin ziren. Aplikazio informatikoa 2019ko apirilean martxan jarriko da.

*En el marco del Decreto 177/2010, de 29 de junio, sobre ayudas para la conciliación de la vida familiar y laboral (modificado por el Decreto 31/2015, de 17 de marzo) resultaron beneficiarias 15.061 personas. De ellas:*

*- 14.331 personas fueron beneficiarias en la línea de ayudas a personas trabajadoras que se encuentren en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o de hijas.*

*- 406 personas fueron beneficiarias en la línea de ayudas a personas trabajadoras que se encuentren en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria.*

*- 324 personas fueron beneficiarias en la línea de contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijos o de hijas menores.*

*Además, se resolvieron 185 recursos de alzada, se hicieron 139 modificaciones de resolución y se iniciaron 75 expedientes de reintegro.*

*2.2. Desarrollo normativo.*

*En 2018, se preparó el borrador del proyecto de Decreto sobre ayudas para la conciliación de la vida familiar y laboral y el borrador de la correspondiente orden de inicio del procedimiento normativo.*

*2.3. Aplicación informática que dará soporte a la gestión administrativa de las ayudas a la conciliación de la vida personal, familiar y laboral.*

*Se mantuvieron reuniones preparatorias con la empresa adjudicataria para la elaboración de la nueva aplicación informática que dará soporte a la gestión administrativa de las ayudas a la conciliación de la vida familiar y laboral, EJIE y personal de la Dirección de Servicios. La aplicación informática se implementará en abril de 2019.*

3. Familia bitartekaritza.

Familia-Bitartekaritza Zerbitzua familia-egoerak auzitara eraman gabe konpontzeko eskaintzen den zerbitzu publikoa da. Bitartekaritza-lana familiaren eta bikotearen inguruan garatzen da, doakoa da, eta hura jasotzea borondatezkoa. Familia edota bikote egoerei buruz esparru neutral batean hitz egiteko informazio juridikoa, psikologikoa eta soziala eskaintzen du. Horren helburuak dira gatazka-egoerei aurre egitea eta komunikazioa erraztea; adostutako konponbideak bilatzea; kostu emozionalak txikiagotzea; eta familia-harremanak auzitara eramatea saihestea.

2018. urtean Familia-Bitartekaritza Zerbitzuak 2.083 espediente tramitatu zituen. lurralde historikoei dagokienez, 394 espediente Arabakoak ziren, 1.180 Bizkaikoak eta 509 Gipuzkoakoak. Espediente horien bitartez, guztira 11.568 pertsona artatu ziren. Espediente guztietatik, 672 aurre-bitartekaritza izan ziren, 891 bitartekaritza, eta 520 jarraipena.

*3. Mediación Familiar.*

*El Servicio de Mediación Familiar es un servicio público, voluntario y gratuito que consiste en la intervención de terceras personas imparciales y expertas, en un entorno neutral. Ofrece información jurídica, psicológica y social para dialogar sobre la situación familiar o de pareja, siendo sus objetivos afrontar los conflictos familiares y facilitar la comunicación; favorecer acuerdos consensuados; minimizar los costes emocionales; y evitar judicializar las relaciones familiares.*

*En la prestación del Servicio de Mediación Familiar se tramitaron durante el año 2018 un total de 2.083 expedientes. Por territorio histórico, 394 expedientes correspondieron a Araba, 1.180 a Bizkaia y 509 a Gipuzkoa. Dichos expedientes supusieron, en total, la atención de 11.568 personas. De todos los expedientes atendidos, 672 fueron de pre-mediación, 891 de mediación y 520 de seguimiento.*

Familia Bitartekarien Erregistroari dagokionez, 2018. urtean izena emateko 43 eskaera jaso ziren. Horietatik 33 onartu ziren, eta 9, berriz, ukatu. Ukatutako 9 eskaeretatik bakarrak aurkeztu zuen gora jotzeko helegitea. Urtea bukatzear, espediente bat dago balorazio fasean.

*En cuanto al Registro de Personas Mediadoras, en 2018 se recibieron 43 solicitudes de inscripción, de las que 33 fueron aceptadas y 9 denegadas. De las 9 solicitudes denegadas se interpuso un recurso de alzada. Al cierre del ejercicio hay un expediente en fase de valoración.*

2018an, gainera, 2013an erregistratutako bitartekariek inskripzioa berritu behar zuten. Ekainean, 104 bitartekariri, gogorarazteko eskutitza bidali zitzaien. Horietatik 40k aurkeztu zuten inskripzioa berritzeko eskaera, eta 3ri ukatzu zitzaien formazioari buruzko baldintzak betetzen ez zituztelako. Horietaz gain, 35 inskripzio indargabetu ziren eskaerarik edota dokumentaziorik ez aurkeztearren. Beste guztiak ebatzi gabe daude, edo oraindik agiriak aurkezteko epe barruan.

*Además, 2018 fue el primer año que procedía renovar las inscripciones registradas en 2013. En junio se envió una carta recordatoria a 104 personas mediadoras, de las cuales 40 presentaron la formación continua requerida para renovar la inscripción. Se denegó la renovación a 3 personas por no cumplir con los requisitos de formación, y se cancelaron 35 inscripciones por no presentar solicitud ni documentación alguna. El resto están sin resolver o en plazo para poder presentar solicitud de renovación.*

Azaroan Familia-Bitartekaritza Zerbitzuaren esku-orri berriak publikatu ziren, formatu eroso eta irakurgarriago batekin. 15.000 ale kaleratu ziren, eta Familia-Bitartekaritza Zerbitzuko eta Zuzenean Zerbitzuko egoitzetan banatu ziren.

*En noviembre se publicaron los nuevos folletos del Servicio de Mediación Familiar, con un nuevo formato más cómodo y legible. Se hizo una tirada de 15.000 ejemplares que se repartieron entre las tres sedes de mediación familiar y las sedes de Zuzenean.*

Zerbitzua Gipuzkoara zabaltzeko aukera aztertzen ari gara, Tolosaldean beste arreta puntu bat irekitzeko, nahiz eta gaur egun ez den datarik zehaztu.

*Estamos trabajando en la posibilidad de ampliar el servicio en Gipuzkoa, con apertura de otro punto de atención en la comarca de Tolosaldea, sin que a esta fecha se haya concretado nada todavía.*

4. EAEko Izatezko Bikoteen Erregistroa.

*4. Registro de Parejas de Hecho de la CAPV.*

4.1. Izatezko bikotea eratzeko deklarazioen inskripzioak eta ezeztapenak.

*4.1. Inscripciones de declaraciones de constitución como pareja de hecho y cancelaciones.*

2018. urtean, izatezko bikotea eratzeko 2.778 deklarazio inskribatu ziren, lurralde historikoka modu honetara banaturik:

- Arabako Lurralde Historikoa: 596.
- Bizkaiko Lurralde Historikoa: 1.535.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoa: 647.

*En el año 2018, se practicaron un total de 2.778 inscripciones de declaración de constitución como pareja de hecho, distribuidas por territorio histórico de la siguiente forma:*

- *Territorio Histórico de Araba/Álava: 596.*
- *Territorio Histórico de Bizkaia: 1.535.*
- *Territorio Histórico de Gipuzkoa: 647.*

Eta, bestalde, inskribatutako izatezko bikoteak eratzeko 1.054 deklarazio ezeztatu ziren, lurralde historikoka modu honetara banaturik:

- Arabako Lurralde Historikoa: 208.
- Bizkaiko Lurralde Historikoa: 559.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoa: 287.

*Y, asimismo, se realizaron 1.054 cancelaciones de parejas de hecho inscritas, distribuidas por territorio histórico de la siguiente forma:*

- *Territorio Histórico de Araba/Álava: 208.*
- *Territorio Histórico de Bizkaia: 559.*
- *Territorio Histórico de Gipuzkoa: 287.*

4.2. Izatezko bikoteei buruzko aplikazio-informatikoa eguneratzea.

*4.2. Actualización de la aplicación informática de parejas de hecho.*

Eguneraketaren xedea ondokoa da: aplikazioaren edukia EAEko Izatezko Bikoteen Erregistroaren Erregelamenduaren edukira (maiatzaren 16ko 155/2017 Dekretuaren bidez onartuta) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedapenetara egokitzea.

*La finalidad de la actualización es adecuar la misma tanto al contenido del Reglamento regulador del Registro de Parejas de Hecho de la CAPV (aprobado por el Decreto 155/2017, de 16 de mayo), como a las disposiciones de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

Horretarako, 5 batzar egin ziren lanak egiteko esleipendun enpresarekin, EJIErekin eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren informatika unitatearekin.

*A tal efecto, se mantuvieron 5 reuniones con la empresa adjudicataria de los trabajos, EJIE y la unidad de informática del Departamento de Empleo y Políticas Sociales.*

5. Familia ugariak.

*5. Familias numerosas.*

5.1. Familia ugarien txartelak.

Familia ugarien 48.320 txartel egin eta banatu ziren, lurralde historikoka modu honetara banaturik:

- Arabako Lurralde Historikoa: 8.983.
- Bizkaiako Lurralde Historikoa: 21.416.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoa: 17.921.

5.2. Familia Ugarien Erakunde Arteko Lantalde Teknikoa.

Familia Ugarien Erakunde Arteko Lantalde Teknikoan ordezkatuta daude Eusko Jaurlaritza, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren bitartez, eta Foru Aldundi guztiak. Lantaldea 2 aldiz bildu zen martxoaren 6an eta azaroaren 7an, hain zuzen.

5.3. Familia Ugarietako aplikazio informatikoa.

Aplikazio informatikoaren zuzenketa eta hobekuntza-proposamenak egin ziren. Zehazki:

- 10 mantenu egokigarri (hobekuntzak).
- 4 zuzenketa.

Bestalde, 8 intzidentzia kudeatu ziren EJIErekin (UAZen bidez).

*5.1. Tarjetas de familia numerosa:*

*Se elaboraron y distribuyeron 48.320 tarjetas de familia numerosa, distribuidas por territorio histórico de la siguiente forma:*

- *Territorio Histórico de Araba/Álava: 8.983.*
- *Territorio Histórico de Bizkaia: 21.416.*
- *Territorio Histórico de Gipuzkoa: 17.921.*

*5.2. Grupo Técnico Interinstitucional de Familias Numerosas.*

*El Grupo Técnico Interinstitucional de Familias Numerosas, en el que están representados el Gobierno Vasco, a través de la Dirección de Política Familiar y Diversidad, y cada una de las Diputaciones Forales, se reunió en 2 ocasiones, en las siguientes fechas: 6 de marzo y 7 de noviembre.*

*5.3. Aplicación informática de Familias Numerosas.*

*Se realizaron propuestas de subsanación y mejora de la aplicación informática. En concreto:*

- *10 mantenimientos adaptativos (mejoras).*
- *4 mantenimientos correctivos.*

*Asimismo, se gestionaron con EJIE, a través del CAU, un total de 8 incidencias.*

### Sentsibilizazio, sustapen eta prebentzio-neurriak.

1. Gurasotasun positiboko programak garatzea, abileziak eta gaitasunak garatzeko.

2006. urtean Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak Estatu kideei gurasotasun positiboa lantzeko gomendioa eman zien. Gurasotasun positiboa hazkuntza eta hezkuntza ulertzeko beste modu bat da: haurren beharrak errespetatzen ditu eta haurren garapena sustatzeko ekintzak martxan jartzen ditu. Horretarako, familia bakoitzaren ingurunea eta gurasoen trebetasunak kontuan hartzen dira.

1.1. Gurasotasunari buruzko ikastaroak.

Profesionalentzat 2 ikastaro egin ziren: 6-12 urteko haurrak dituzten familiekin lan egiten dutenentzat. Guztira, 218 pertsona trebatu ziren; horietatik, %20,70 Osakidetzakoak ziren, eta, gainerakoak, %79,30, gizarte zerbitzuetakoak, hezkuntzakoak, eta abar.

1.2. Web Gurasotasuna.

Familiekin lan egiten duten profesionalentzat da, eta 2018an 182 erabiltzaileren 317 bisita jaso zituen.

Webgunean argitaratutako berritasunak biltzen zituzten 6 buletin bidali ziren.

1.3. Gurasotasunari buruzko proiektuen hedapena.

Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak

### *Medidas de sensibilización, promoción y prevención.*

*1. Desarrollo de programas de parentalidad positiva para el desarrollo de habilidades y competencias.*

*En el año 2006 el Comité de Ministros del Consejo de Europa emitió una recomendación a los Estados miembros para que trabajasen la parentalidad positiva. La parentalidad positiva es una manera de entender la crianza y la educación, basada en el respeto a las necesidades de los niños y las niñas y en la puesta en marcha de acciones que favorezcan su desarrollo, teniendo en cuenta el entorno de cada familia y las habilidades de los padres y/o de las madres.*

*1.1. Cursos on-line de parentalidad positiva.*

*Se realizaron dos ediciones dirigidas a profesionales que trabajan con familias con niños y niñas de 6-12 años. En total recibieron formación 218 personas, de las cuales el 20,70% pertenecía a Osakidetza y el 79,30% restante a los ámbitos de servicios sociales, etc.*

*1.2. Web Gurasotasuna.*

*La web está dirigida a profesionales que trabajan con familias. En 2018 recibió 317 visitas de 182 usuarios.*

*Se remitieron 6 boletines bimensuales durante 2018 con las novedades publicadas en la web.*

*1.3. Divulgación de los proyectos de parentalidad positiva.*

*La Dirección de Política Familiar y Diversidad participó*

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizaterako Ministerioak antolatutako Gurasotasunari buruzko VI. Jardunaldietan parte hartu zuen. Zehazki, ekainaren 1ean egindako mahai inguruan esku hartu zuen familiak sustatzeko esperientzia berriak eta jardunbide egokiei buruzkoa zena.

*en las VI Jornadas sobre parentalidad positiva organizadas por el Ministerio de Sanidad, Consumo y Bienestar Social. En concreto, el 1 de junio formó parte de la mesa redonda sobre experiencias innovadoras y buenas prácticas en materia de apoyo a las familias.*

1.4. Herritarrei komunikazioa.

*1.4. Comunicación a la ciudadanía.*

2018ko martxoaren 19an inguruan, “Ez galdu” komunikazio kanpaina egin zen, bai irratian, bai whatsappean. Lehen aldiz aita izan zirenei, batez ere, zuzenduta zegoen eta xedea, aitatasunaren garrantziaz jabetzea eta engaiatzea zen. Mezua: “aita izatea aukera paregabea da”.

*Campaña “No te lo pierdas”, en torno al 19 de marzo de 2018, realizada en radio y whatsapp, cuyo objetivo era sensibilizar, sobre todo a los padres primerizos, sobre la importancia de afrontar la paternidad de forma consciente y comprometida. El mensaje era: ser padre es una oportunidad única.*

1.5. Ikerketa eta proiektu pilotuak.

*1.5. Investigación y proyectos pilotos.*

Guraso eta seme-alaben arteko indarkeriari buruzko azterlana, 2019ko otsailean bukatuko da. Azterlan horren helburua da EAEn guraso eta seme-alaben arteko indarkeriaren egoera ezagutzea, beharrak antzemateko eta indarkeria hori saihesteko jarduketa plan orokor bat eskaintzea eta guraso eta seme-alaben arteko indarkeria pairatzen duten familiei arreta ematea.

*Estudio sobre violencia filio-parental, que finalizará en febrero de 2019 y tiene por objeto analizar la situación de la violencia filio-parental en la Comunidad Autónoma de Euskadi, estudiar la influencia de las variables familiares, detectar necesidades y ofrecer un plan de actuación global para su prevención y atención a las familias que se enfrentan a situaciones de violencia filio-parental.*

Hausnarketa-funtzioaren eta aitaren eta amaren eskumenen arteko loturari eta 0 eta 2 urte bitarteko haurren (Haurreskolak Partzuergoan) doitze sozioemozionalari buruzko azterlana. Uztailean amaitu zen. “Gatazka eta krisiak familietan. Aurrerapenak esku-hartze kliniko eta komunitarioan” nazioarteko kongresuan aurkeztu zen azterlana eta gaur egun komunikazio eta zabalpen fasean dago.

*Estudio sobre la relación entre la función reflexiva y las competencias paterna y materna, y el ajuste socio emocional de bebés de 0 a 2 años en el consorcio Haurreskolak, presentado en el Congreso Internacional “Conflicto y crisis en las familias. Avances en la intervención clínica y comunitaria”. Finalizado en julio, actualmente se está realizando la comunicación y divulgación.*

Hazkuntza proiektu pilotuan, EAEko hiru lurralde historikoetako sare publikoko 11 osasun-zentrotan profesionalen eta gurasoen sentsibilitatea sustatzeari buruzkoa. 111 osasun-langile (18 taillerretan) eta 30 familia (42 pertsonek osatuta) prestatu ziren.

*Proyecto piloto Hazkuntza sobre promoción de la sensibilidad profesional y parental en once centros de salud de la red pública en los tres territorios históricos de la Comunidad Autónoma. Se formaron 111 personas sanitarias en 18 talleres y 30 familias formadas por 42 personas.*

Zaintza partekatua duten familiei edo guraso bakarreko familiei gurasoentzako orientabidea emateko proiektu pilotua. Programa profesional kualifikatuen laguntzarekin gurasoak banandutа zituzten familiei gurasoentzako plan bat egiteko laguntza ematera bideratuta zegoen. 853 saiotan zehar, programak 713 familiari eman zien arreta hiru lurralde historikoetan.

*Proyecto piloto de orientación parental a nuevas familias con custodia compartida o monoparental. El programa estaba dirigido a facilitar a las familias cuyos progenitores no convivían la elaboración de un plan parental con la ayuda de profesionales cualificados. El programa atendió a 713 familias en los tres territorios históricos en 853 sesiones.*

2. Kontziliazioa errazteko eta kontziliazio-neurriak garatzeko jarduerak.

*2. Actuaciones para facilitar la conciliación y el desarrollo de medidas de conciliación.*

2.1. Bateratu+ Ataria.

*2.1. Portal Concilia+.*

2018an, Bateratu+ web orriak 87.041 erabiltzaile izan zituen, 50.880 orrialde ikusi ziren eta 49 galdera erantzun ziren. Kontsultetan beherakada handia egon zen aurreko urteko kontsultekin alderatzen badira. Itaun horietatik, 22 lanaldiaren murrizketari eta 11 eszendentziari buruzkoak izan ziren. Atal horretan ez daude sartuta 12 asteko aitatasun baimenaren inguruko galderak, horiek zuzenean zuzendaritzatik erantzun baitziren.

*En 2018, la web Concilia+ recibió 87.041 visitas de usuarios/as con 50.880 páginas vistas y 49 consultas realizadas. De las consultas recibidas 22 se referían a la reducción de jornada y 11 a las excedencias. Sobre las personas que realizaron la consulta, 43 eran mujeres y 6 hombres. No están incluidas las consultas relativas a las 12 semanas de paternidad, ya que fueron directamente respondidas desde el Departamento.*

2017ko migrazio-aldiaren ondorioz, kontsulten atala aldatu zen eta concilia@euskadi.eus helbide

*Desde la modificación del apartado consultas, eliminando el email concilia@euskadi.eus, y la*

elektronikoa ezabatu zen, itaunak egiteko helbidea. Eusko Jaurlaritzako formulario orokorragatik ordezkatu zen; horrenbestez, galderetan beherakada handia egon zen.

*sustitución por el enlace al formulario genérico del Gobierno Vasco en abril de 2017, las consultas disminuyeron considerablemente.*

Gehien bisitatu ziren web orrialdeak izan ziren kontziliaziorako dauden laguntzarenak eta kontziliazio-neurrien inguruan sarritan egindako galderen atalak izan ziren.

*Las páginas más visitadas fueron las relativas a las ayudas a la conciliación y a las preguntas frecuentes sobre las medidas de conciliación.*

Facebooken 97 argitalpen egin ziren, eta orriak, gaur egun, 370 jarratzaile ditu, iaz baino 2 gutxiago.

*En Facebook se realizaron 97 publicaciones, contando actualmente la página con 370 seguidores, 2 menos que el año anterior.*

2.2. Kontziliazio-neurriak ezartzeko enpresentzako aholkularitza-programa.

*2.2. Programa de asesoramiento a empresas para la implementación de medidas de conciliación: KONTZILIA 30.*

2018an 30 enpresatan kontziliazio-neurriak ezartzeko aholkularitza-proiektu pilotua garatu zen, 10 enpresa lurralde historiko bakoitzeko. Proiektuaren helburua zen enpresa parte-hartzaileei laguntzea pertsonaren, familiaren eta lanaren arteko kontziliazio neurriak ezartzeko prozesuan, egoera eta aukeren diagnostikotik hasita, enpresaren eta langileen egoerara gehien egokitzen ziren neurriak burutzera arte.

*En 2018 se desarrolló el proyecto piloto de asesoramiento en la implantación de medidas de conciliación en 30 empresas, 10 por cada territorio histórico, cuyo fin era acompañar a las empresas participantes en el proceso de implementación de medidas de conciliación de la vida personal, familiar y laboral, desde la elaboración de un diagnóstico de su situación y posibilidades, pasando por la planificación del proceso y acabando con la ejecución de las medidas de conciliación más acordes a la realidad productiva y las necesidades de la plantilla.*

Aintzat hartu ziren arlo anitzeko jarduerak; hau da, tamaina, jarduera mota, enpresaren eta langileen beharrak, eta abar kontuan edukita, enpresa mota ezberdinek parte hartu zuten.

*El proyecto pretendía que diferentes sectores de actividad pudieran estar representados, por lo que participaron empresas muy diferentes, teniendo en cuenta el tamaño, el tipo de actividad, las necesidades (tanto de la empresa, como de los trabajadores) y los sectores a los que pertenecen.*

Prozesuak guztiz parte-hartzaileak izan ziren, eta ondorioz, konpromiso-maila handiagoak lortu ziren. Helburua zen lortutako akordioak guztientzako onuragarriak, denbora iraunkorrak eta enpresaren eta langileen beharren artean orekatuak izatea.

*Los procesos fueron plenamente participativos y, al participar directamente, se obtuvieron mayores cotas de compromiso entre las partes. El objetivo era que los acuerdos alcanzados fueran positivos, duraderos y equilibrados entre las necesidades de la empresa y la plantilla.*

Enpresekin egindako banakako saioen ostean, eta kontziliazio-neurrien inplementazioan lagundu ondoren, jarraipen eta ebaluazio protokoloak ezarri ziren, samurrak, baina eraginkorrak. Horiek, denbora pasa ahala, enpresaren beharrei egokitzen eta zehazten joan ziren.

*Tras las sesiones individuales con las empresas, y el acompañamiento en la implementación de medidas de conciliación, se establecieron protocolos de seguimiento y evaluación, sencillos pero efectivos, que, a lo largo del tiempo, se fueron adecuando y ajustando dependiendo de las necesidades de cada empresa.*

Gainera, enpresen eboluzioa on-line jarraitzeko tresna bat ezarri zen, Moodle plataformaren bitartez, non denbora errealean bideratu daitezke parte-hartzea eta elkarlana. Espazio horretan, Zuzendaritzak proiektuaren jarraipena egiteko (egindako saioak, kontsultak, lanerako tresnak, eta abar) eta lan-egutegia begiratzeko aukera izan zuen.

*Además, se puso en marcha un dispositivo de seguimiento online, bajo la fórmula de una plataforma Moodle, para canalizar en tiempo real la participación y trabajo conjunto. En ese espacio, la Dirección tuvo acceso al seguimiento de los proyectos (sesiones realizadas, consultas, materiales de trabajo elaborados, etc.), al calendario de trabajo con las empresas, etc.*

Horretaz gain, prozesuan zehar proiektuaren arduradunekin hilero bilerak egin zituen Zuzendaritzak. Horrela lanaren, garapenaren eta aurrerapenen jarraipena egin zen, eta jasandako zailtasunei buruz jakinaren gainean egon zen.

*Durante el proceso de planificación se mantuvieron reuniones mensuales con los responsables del proyecto, para hacer el seguimiento de los trabajos, de su desarrollo y avances, además de las dificultades por las que han pasado.*

Bukatzeko, abenduaren 10ean Kontzilia 30 komunitatearen lehenengo topaketa egin zen. Horren asmoa zen prozesuan parte hartzen ari ziren

*Por último, el 10 de diciembre se celebró el primer encuentro de la comunidad Kontzilia 30, creado con la intención de que las instituciones involucradas en el*

erakundeak elkar ezagutzea eta esperientziak partekatzea. Lehenengo topaketa horretan Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailburua, Beatriz Artolazabal Albeniz, eta Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaria den Ernesto Sainz Lanchares izan ziren. Horietaz gain, parte hartzen ari ziren 15 enpresetako ordezkari.

*proceso se conocieran, y poder poner en común las experiencias que estaban viviendo cada una de ellas. A ese primer encuentro acudieron la Consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal Albeniz, y el Director de Política Familiar y Diversidad, Ernesto Sainz Lanchares, además de 15 de las empresas que estaban participando en el pilotaje.*

### Euskal Autonomia Erkidegoko familia-politikaren planifikazioa, koordinazioa eta ebaluazio orokorra.

### *Planificación, coordinación y evaluación general de la política de familia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

1. Familien eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Ituna.

2018ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Eudelek Familien eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Ituna sinatu zuten.

Itunak euskal erakunde nagusiek familien eta haurtzaroaren egoeran eragiten duten politika guztiak jasotzen dituen estrategia bat garatzeko duten konpromisoa jasotzen du: haurrak dituzten familientzako prestazio ekonomikoak, uztartze erantzukiderako eta ordutegiak arrazionalizatzeko politikak, haurrentzako arreta, hezkuntza-ekitatea, gurasotasun positiboa, babesgabetasun egoeran edo hori jasateko arriskuan dauden haurrentzako gizarte zerbitzuak hornitzea, ohitura osasungarriak sustatzea, gizarte eta hezkuntza arloko zerbitzu, sare eta ekipamenduak garatzea eta abar.

2018ko otsailean eman zitzaien herritarrei Itunaren berri irratiaren eta prentsaren bidez. Helburua familien eta haurtzaroaren arloan euskal administrazioek zuten konpromisoa ezagutaraztea izan zen.

2. 2018ko otsailaren 9an Euskadiko familien eta haurren esparruan inbertitzeko estrategiari buruzko Jardunaldia egin zen Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaia Areatoaren eraikinean (Bilbon) eta 145 pertsonak hartu zuten parte.

Familien eta haurtzaroaren beharrei buruzko eta horiei aurre egiteko modu onenari buruzko hausnarketa bat egitea izan zen jardunaldien xedea. Itunean jasotako konpromisoak jaso eta Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planaren oinarriak ezarri nahi izan ziren.

3. 2018ko otsailaren 14an, Word Cafe bat egin zen Gasteizko Europa biltzar-jauregian Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planaren ildo orokorrak aurkezteko eta gonbidatu ziren 60 pertsonekin aipaturiko ildoak kontrastatzeko eta beren ekarpenak jasotzeko. Parte-hartzaileen ekarpenak jasotzeko metodologia parte-hartzaile bat erabili zen; horretarako, eztabaidarako mahaiak osatu ziren panel bakoitzean mapa kontzeptualak erabiliz.

4. Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana.

Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018ko ekainaren 19ren Gobernu Bilerak baietsi zuen, Familia eta Haurren aldeko Euskal Ituna zabaltzeko eta gauzatzeko plangintza-tresna nagusia.

Planaren helburua pertsonek beren familia-proiektua hasi eta nahi beste seme-alaba izatea zailtzen duten oztopoak

*1. Pacto Vasco por las Familias y la Infancia.*

*En enero de 2018, el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y Eudel suscribieron el Pacto Vasco por las Familias y la Infancia.*

*El Pacto recoge el compromiso de las principales instituciones vascas para el desarrollo de una estrategia que contemple todas aquellas políticas que inciden en la situación de las familias y la infancia: prestaciones económicas a las familias con hijos e hijas, políticas de conciliación corresponsable y de racionalización de horarios, atención infantil, equidad educativa, parentalidad positiva, provisión de servicios sociales a la infancia en situación o riesgo de desprotección, fomento de hábitos saludables, desarrollo de servicios, redes y equipamientos socioeducativos,…*

*La comunicación del Pacto a la ciudadanía se realizó en febrero de 2018 en radio y prensa. El objetivo fue dar a conocer el compromiso del conjunto de las administraciones vascas por las familias y la infancia.*

*2. El 9 de febrero de 2018 se celebró la Jornada sobre "Estrategia de inversión en las familias y la infancia en Euskadi" en el Bizkaia Aretoa del edificio de la Universidad del País Vasco en Bilbao, con 145 personas asistentes.*

*El objetivo de las jornadas fue realizar una reflexión sobre las necesidades de las familias y de la infancia, y sobre la mejor forma de hacerles frente. Se trató de recoger los compromisos recogidos en el Pacto y de poner las bases del IV Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias.*

*3. El 14 de febrero de 2018 se celebró un Word Café en el Palacio de Congresos Europa de Vitoria-Gasteiz con el objeto de presentar las líneas generales del IV Plan Interinstitucional de apoyo a las familias y de contrastar dichas líneas con las 60 personas invitadas y recibir sus aportaciones. Para recoger las aportaciones de las personas participantes se utilizó una metodología participativa con trabajo en mesas de debate a través de mapas conceptuales en cada panel.*

*4. IV Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias.*

*El IV Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias, aprobado por el Consejo de Gobierno en su sesión de fecha de 19 de junio de 2018, es la principal herramienta de planificación para el despliegue y la materialización del Pacto Vasco por las Familias y por la Infancia.*

*Está dirigido a la progresiva eliminación o reducción de los obstáculos que dificultan que las personas puedan iniciar*

pixkanaka ezabatzea edo murriztea da. Planak Europako erakundeek babestuta, haurretan inbertitzeko ikuspegia gauzatzen du. Horretarako, ume eta nerabe guztien aukera-berdintasuna bermatzen duten neurriak antolatzen dira, eta belaunaldien arteko desberdintasunaren transmizioa saihesten da eta, ondorioz, seme-alabak dituzten familien pobrezia-egoera murriztuko da.

*su proyecto familiar y tener el número de hijos e hijas deseado y materializa el enfoque de inversión en la infancia auspiciado por las instituciones europeas, mediante la articulación de medidas que garanticen la igualdad de oportunidades de todos los niños, niñas y adolescentes, y previene la transmisión intergeneracional de la desigualdad reduciendo las situaciones de pobreza de las familias con hijos e hijas.*

5. Herri-administrazioen eta gizarte erakundeen partaidetza indartzea Familiaren Euskal Kontseiluaren bitartez.

*5. Fortalecimiento de la participación por parte de las distintas Administraciones Públicas y de las entidades sociales a través del Consejo Vasco de Familia.*

2018an, bitan bildu zen Familiaren Euskal Kontseilua:

*El 2018, el Consejo Vasco de Familia se reunió en 2 ocasiones:*

- Lehenengoan, 2018ko martxoaren 26an, Sailak Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko IV. Planari buruzko informazioa eman zuen.
- Bigarrenean, 2018ko maiatzaren 15ean, Kontseiluak Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko IV. Planari oniritzia eman zion.

- *En la primera de ellas, celebrada el 26 de marzo de 2018, el Departamento informó sobre el IV Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias.*
- *En la segunda, el 15 de mayo de 2018, el Consejo informó favorablemente el IV Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias.*

Gainera, Familiaren Euskal Kontseiluan sortutako lantalde bat 2018ko apirilaren 21ean bildu zen, Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko IV Plana aztertzeko.

*Además, un Grupo de Trabajo creado en el seno del Consejo Vasco de Familias se reunió el 21 de abril de 2018 para analizar el IV Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias.*

6. Familiaren Behatokia.

*6. Observatorio de Familia.*

